



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA 2019/2020

# Erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktoreak

---

LITERATURAREN AZTERKETA KRITIKOA

EGILEA: Nerea Elorza Sancho  
ZUZENDARIA: Itziar Bitorika Muguruza  
HITZ KOPURUA: 5.335  
Gasteizen, 2020ko apirilaren 20an.

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	4
HELBURUA.....	7
METODOLOGIA.....	8
BARNERATZE IRIZPIDEAK.....	8
KANPORATZE IRIZPIDEAK.....	9
EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	10
<u>FAKTORE OBSTETRIKOAK</u> .....	10
1. <i>ERDITZE MOTA</i> .....	10
2. <i>EPISIOTOMIA</i> .....	12
3. <i>PARITATEA</i> .....	14
<u>FAKTORE EZ-OBSTETRIKOAK</u> .....	14
1. <i>FAKTORE SOZIODEMOGRAFIKOAK</i> .....	14
1.1    ADINA.....	14
1.2    DIRU-SARRERAK.....	16
2. <i>OSASUN EGOERA</i> .....	17
2.1    EZTULA.....	17
2.2    IDORRERIA.....	17
2.3    GMI/PISUA.....	18
2.4    HAURDUNALDIAN GERNU INKONTINENTZIA.....	20
3. <i>FAMILIA AURREKARIAK</i> .....	21
ONDORIOAK.....	22
MUGAK ETA ZAILTASUNAK.....	23
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	25
ERANSKINAK.....	29
1.    ERANSKINA: KONTZEPTU-TAULA.....	29
2.    ERANSKINA: BILAKETA EKUAZIOAK.....	30
3.    ERANSKINA: IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA (I).....	33
4.    ERANSKINA: IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA (II).....	37
5.    ERANSKINA: FLUXU DIAGRAMA.....	40
6.    ERANSKINA: LABURPEN-TAULA.....	41
7.    ERANSKINA: ZUHAITZ KATEGORIALA.....	56

## SARRERA

Erditze ostea umearen jaiotzetik hilerokoa bueltatu arteko garaia da, non gorputzeko sistema asko haurdunaldi aurreko garaiko egoerara itzultzen diren. Zoru pelbikoa aldaketak jasaten dituen ohiko egituretako bat da, zeinen ondorio ohikoenen artean gernu inkontinentzia aurkitzen den. Gernu inkontinentzia modu inboluntarioan maskuritik ematen den gernu galeratzat definitzen da. Erditu osteko lehen hiru eta hamabi hilabeteen bitartean, gernu inkontinentziaren prebalentzia %30 eta %47 artekoa dela ezagutzen da. Erizainok emakumeekin beren bizi ziklo osoan zehar harremana izanik, gaixotasunaren garapenean eragina duten arrisku faktoreak ezagutzeak haurdunaldi aurreko zein ondorengo garaietan hauen gain lan egitea ahalbidetuko digu, agerpena prebenitzeko zein hau tratatu edota arintzeko.

Errebisio bibliografiko honen helburua, erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenean eragina izan dezaketen arrisku faktoreak aztertzea da.

Azken hamar urtetako literaturaren errebisio bibliografiko bat burutu da Medline, Cinahl, Cuiden, Cochrane Library, RNAO, NICE, Scielo eta ScienceDirect iturri zientifikoetan. Honetarako, “erditze ostea”, “gernu inkontinentzia” eta “arrisku faktore” hitz gakoak erabili dira. Ondoren, literaturaren azterketa kritikoa burutu izan da.

Helburuari erantzuna emateko 15 artikulua erabili dira. Alde batetik, faktore obstetrikokoak aztertu dira, non erditze mota, episiotomia eta paritatea azpimultzoak ikertu diren. Bestetik, faktore ez-obstetrikoen multzoan, faktore soziodemografikoak (amaren adina eta diru-sarrerak), osasun egoera (eztula, idorroria, amaren GMI/pisua eta haurdunaldian gernu inkontinentzia izatea) eta familia aurrekariak aztertu dira.

Erditze mota baginala izateak zein multiparitateak erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenarekin harremana dutela esan dezakegu. Faktore ez-obstetrikoei dagokionez, amaren adina eta haurdunaldian zehar gernu inkontinentzia izatea identifikatu dira arrisku faktoretzat. Eztula, idorroria, diru-sarrerak edota familia aurrekariak bezalako faktoreen kasuan erditu osteko gernu galerekin harremana izan dezaketela pentsatu dezakegun arren, ikerketa gehiagoren beharra legoke ideia hau baieztatu ahal izateko.

## ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Erditze ostea umearen jaiotzetik hilerokoa bueltatu arteko garaia deritza. 6-8 asteko iraupena duela onartzen da, aste horietan zehar gorputzeko sistema asko haurdunaldi aurreko garaiko egoerara itzultzen baitira. Hala ere, gorputzeko sistema guztiek ez dute denbora tarte berdina behar aurreko egoerara itzultzeko, eta gainera, aldaketen garapena ez da ezinbestean lineala izaten denboran zehar. Arrazoi honengatik, zenbait egilek erditze osteko garaia 12 hilabetera arte luzatzen dute (1,2).

Zoru pelbikoa haurdunaldi eta erditze garaian hainbat aldaketa jasaten dituen egituretako bat da. Hau, gernu-sistema, ugal-aparatu zein digestio aparatuko organoen euskarri eta esekitze-sostengu da. Zoru pelbikoaren egituren aldaketak ematen direnean, gernu inkontinentzia zein inkontinentzia fekala edota sexu-organoen prolapsioak bezalako konplikazioak ager daitezke. Erditze osteko garaia dagokionez, zoru pelbikoak jasaten dituen aldaketen ondorio ohikoenen artean gernu inkontinentzia aurkitzen da (3-6).

Gernu inkontinentzia modu inboluntarioan maskuritik ematen den gernu galeratzat definitzen du Nazioarteko Kontinentzia Erakundeak. 1998. urtetik, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) gaixotasuntzat definitzen du, bere maiztasuna eta bizi kalitatean dituen ondorio eta eragin psiko-sozialengatik (7-9).

MOE-k, sexu zein adina edozein izanik ere, mundu osoan ematen den gernu inkontinentziaren maiztasuna 200 milioi pertsona ingurukoa dela estimatzen du. Espainiari dagokionez, 3 milioi pertsona inguruk gernu inkontinentzia pairatzen dutela kalkulatu da, zeinetatik  $\frac{3}{4}$  emakumeak diren. Erditze osteko gernu inkontinentziari dagokionez, datuak anitzak dira (10,11).

Erditu osteko lehen hiru eta hamabi hilabeteen bitartean, gernu inkontinentziaren prebalentzia datuak %30 eta %47 artekoak direla ezagutzen da, hurrenez hurren. Zenbait ikerketek, haurdunaldian zehar edota erditu ostean gernu inkontinentzia garatzen duten emakumeen ehuneko handi batek, gaixotasunaren sintomak epe luzera mantentzeko arrisku handiagoa aurkezten dutela ikusi dute, 12 urtera arteko denbora tartean, hain zuzen ere (12,13).

Datu hauei, gainera, diagnostikatu gabeko kasu ugari egotea gehitu behar zaio, gernu inkontinentzia pairatzen duten zenbait pertsonak lotsa dela eta ezkutatu egiten dutelako edota egoerarekin bat datorren ondorioztat onartzen dutelako (9,14,15).

Gernu inkontinentzia motei dagokionez, hauek dira erditze osteko garaian maiztasun handienarekin ematen direnak (16):

1)**Esfortzuzko gernu inkontinentzia:** presio intraabdominalaren areagotzea eragiten duen esfortzu edo ahalegin bat ematen da. Honek, uretrako esfinterraren borondatezko kontrakzioaren edota muskulu perinealen erreflexuan dagoen asaldura baten ondorioz, gernuari eusteko ezintasuna eragiten du, gernu ihesa eraginez. Hainbat ikerketetan ikusi ahal izan denaren arabera, erditze osteko garaian ematen den gernu inkontinentzia mota ohikoena da (7,9,16-18).

2)**Larrialdiko gernu inkontinentzia:** maskuriaren muskulu detrusorearen uzkuzte mugimendu inboluntarioen ondorioz ematen da, komunera iritsi arte gernuari eusteko ezintasuna eragiten duelarik (7,18,19).

3)**Gernu inkontinentzia mixtoa:** aurrez aipaturiko bi inkontinentzia moten konbinazioa da (9,18,19).

Erditze ostean ematen den gernu inkontinentziaren etiologiaz hitz egitean, faktore anitzen konbinazioaz hitz egiten da, hau da, eragile espezifikorik ez duen arren, hainbat faktorek bere agerpenean eragin zuzena dutela ezagutzen da. Hala eta guztiz ere, esan behar da aldagai hauetako ugari izateak ez duela zuzenean gernu inkontinentziaren agerpenik suposatu behar (7,20).

Gaixotasun honek, pairatzen duen pertsonarengan ondorio ugari eragiten ditu, beren autonomia mugatuz, autoestimua urrituz eta bizi kalitatean inpaktu handia eraginez. Erditze osteko gernu inkontinentziak emakumeengan dituen eraginen artean, muga fisikoak, egunerokotasunean jarduerak burutzeko mugak edota alderdi emozionalean duen eragin altua dira aipagarriak. Gainera, gernu inkontinentzia duten emakumeen kasuan, osasun egoera orokorra, bizitasuna, egoera soziala eta osasun mentala bezalako alderdietan egoera okerragoa aurkezten dutela ikusi da (8,15,16).

Gernu inkontinentziak pertsonaren bizitzako arlo ugarietan dituen ondorioak ikusirik, agerikoa da gaixotasuna pairatzen duen pertsonaren artatzean, ezinbestekoa izango dela arreta integral eta multidisziplinarra eskaintzea (7,18).

Kontua da, ordea, larritasunezko pronostikorik ez dakarren aspektu bat izateagatik, osasun arretako langileek maiz behar beste garrantzia ez ematea dakarrela. Hori dela eta, askotan ez dute gaixotasunaren inguruko galderarik burutzen, edota gaixotasuna artatzekotan, xurgatzaileen bidezko tratamenduak eskaintzen dira, prebentzioa lantzerantz bideratutako jarduerak alde batera utziz (15,20,21).

Gaixotasun hau pairatzen duten emakumeen artatzean, beraz, garrantzitsua izango da dagokigun erantzukizuna onartzea, arrisku faktoreak ezagutzeak haien gain lan egitea ahalbidetuko baitigu, erditze osteko gernu inkontinentziaren agerpena prebenitzeko zein hau tratatu edota arintzeko (21,22).

Emakumeen bizitzako garai honetan beraiekin harremanetan egongo diren osasun profesionalak bereziki emaginak dira eta hauek izango dira momentu horretan arrisku faktoreen gain lan egin ahalko dutenak. Hala eta guztiz ere, erizainok emakumeekin beren bizi ziklo osoan zehar harremana izaten dugu, eta beraz erditze eta haurdunaldi aurreko zein ondorengo garaietan gaixotasun honen garapenean eragina izan dezaketen arrisku faktoreen gain lan egiteko aukera dugu.

Izan ere, modu honetan soilik lortuko dugu paziente hauei dagokien arreta egokia eskaintzea. Betiere, kontutan izanik zenbaitetan gure gaitasun profesionaletatik at geldituko diren egoerak suertatu daitezkeela eta kasu hauetan espezialistengana bideratu beharko ditugula (21,22).

Errebisio honen helburua, beraz, emakumeetan erditze osteko gernu inkontinentziaren agerpenean eragina duten arrisku faktoreen identifikazioa da. Horrela, gaixotasuna duten edo pairatzeko arriskua duten emakumeen arretan, erizainak esku hartzea zein faktoreen gain burutu behar duen identifikatzeko.

## **HELBURUA**

Erditze osteko gerru inkontinentziaren garapenean eragina izan dezaketen arrisku faktoreak aztertzea.

## METODOLOGIA

Erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktoreen gaineko literaturaren errebisio kritiko bat burutu zen lan honen helburuari erantzuteko asmotan.

Helburua kontutan izanik, erabili ziren oinarritzko kontzeptuak honakoak izan ziren: “erditze ostea”, “gernu inkontinentzia” eta “arrisku faktore”. Ondoren, hitz hauen sinonimoen zerrenda bete zen lengoaia naturalean, eta ingelesera itzuli ziren. Horretarako, DeCS liburutegi birtualean aurkitutako sinonimoak zein artikuluetan aipatzen ziren hitz gakoak erabili ziren. Jarraian, datu base ezberdinetako hitz gakoak izendatu ziren lengoaia kontrolatuan (Ikusi 1. eranskina: kontzeptu taula).

Datu base bakoitzean erabili beharreko deskriptoreak lortu ostean, hauen konbinazioaren bitartez ekuazio ezberdinak eraiki ziren “AND” eta “OR” operadore booleanoak erabiliz. Honako datu base hauek kontsultatu ziren: Medline (Ovid), Cinahl eta Cuiden. Gaiaren inguruko informazio gehiago lortzeko helburuarekin, datu base hauetaz gain praktika klinikorako gidak (Cochrane Library, RNAO eta NICE) kontsultatu ziren. Halaber, eskuzko bilaketak gauzatu ziren Scielo eta ScienceDirect editorialetan (Ikusi 2. eranskina: bilaketa ekuazioak).

Artikuluen aukeraketa zehazteko hainbat barneratze eta kanporatze irizpide zehaztu ziren.

## BARNERATZE IRIZPIDEAK

### **Argitalpen data**

Azken hamar urteetan argitaratutako artikulua, hau da, 2009 eta 2020 urte bitartekoak hautatu ziren. Erabilitako informazioa ahalik eta eguneratuena izateko helburuarekin mugatu zen urte tarte honetara.

### **Argitalpen hizkuntza**

Bilaketa gaztelaniaz zein ingelesez argitaratutako artikuluetara bideratu zen, hauek baitira menperatzen ditudan hizkuntzak.

### **Argitalpen mota**

Barneratutako lanak berrikusketa sistematikoak, berrikusketa bibliografikoak, meta-analisiak, entsegu klinikoak eta gainerako ikerketa kuantitatiboak izan ziren.



### **Parte-hartzaileak**

Erditu osteko lehen hamabi hilabetetan aurkitzen ziren emakumeen inguruko lanak onartu ziren.

## **KANPORATZE IRIZPIDEAK**

### **Argitalpen mota**

Ebidentzia maila baxua eskaintzen duten lanak deuseztatu ziren (literatura grisa, iritzi artikulua, konferentziak...).

### **Parte-hartzaileak**

Erditu aurretik zein erditu osteko hamabi hilabeteetatik aurrerako aldian aurkitzen ziren emakumeen inguruko lanak baztertuak izan ziren.

### **Ikerkuntza gaia**

Soilik erditze osteko gernu inkontinentzia tratatzeko neurrien inguruko lanak ez ziren onartu.


Artikuluen hautaketa prozesua burutzeko, lehenik datu base ezberdinetan planteatutako ekuazioetatik lortutako lanen izenburu eta laburpenak irakurri ziren. Hauetako hainbat, deuseztatu egin ziren gaiarekin bat ez zetozelako, lan honen helburuari erantzuten ez ziotelako, barneratze-kanporatze irizpideak betetzen ez zituztelako edota errepikatuak zeudelako. Behin hau eginda, baliagarriak ziruditen artikuluen “Full text”-ak lortzeari ekin zitzaion, hauen irakurketa osoa burutu ahal izateko. Horrela, testu osoan lortu ezin izan ziren lanak baztertu ziren. “Full text” moduan lortutako lanak irakurri ostean, beste bazterketa bat egin zen, ez zituztelako barneratze-kanporatze irizpideak betetzen edota ez ziotelako helburuari erantzuten. Azkenik, artikuluen kalitatea eta baliagarritasuna ziurtatzeko, irakurketa kritikorako gidoia erabili zen (Ikusi 3. eta 4. eranskinak: ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoak).

Eskuzko bilaketaren bidez lortutako artikuluen kasuan, datu baseetan lortutako artikuluekin jarraitu ziren pausu berdinak eman ziren.

Hautaketa prozesu osoan zehar emandako urratsak, fluxu diagrama baten bitartez adierazi ziren (Ikusi 5. eranskina: fluxu diagrama eta 6. eranskina: laburpen taulak).

## EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan honen helburuari erantzuna emateko, literaturaren errebisio kritikoa burutu ostean hamabost artikulua baliagarri lortu ziren. Hautatutako artikuluen diseinu motari dagokionez, hamar kohortezko ikerketa, lau zeharkako ikerketa (prebalentziazkoak) eta kasu-kontrol ikerketa bat erabili ziren (Ikusi 1. irudia).



1. Irudia: hautatutako artikuluen sailkapena diseinu motaren arabera.

Lanen irakurketa egin ondoren, faktore obstetrikoen eta ez-obstetrikoen arteko bereizketa egin zen. Faktore obstetrikoen artean, bereizi ziren faktoreak erditze mota, episiotomia eta paritatea izan ziren. Faktore ez-obstetrikoen kasuan, aldagaiak hiru azpimultzotan banatu ziren: lehena faktore soziodemografikoei zegokien, adina eta diru-sarrerek osatzen zutena. Bigarren multzoa osasun egoera izan zen, non eztula, idorreria, pisua/GMI eta haurdunaldian gerru inkontinentzia izatea aztertu ziren. Azkenik, hirugarren azpimultzoa familia aurrekariak izan ziren (Ikusi 7. eranskina: zuhaitz kategoriala).

## FAKTORE OBSTETRIKOAK

### 1. ERDITZE MOTA

Artikulu asko izan dira erditze motak (baginala: espontaneo/instrumentatua; zesarea bidezkoa) zein hauekako bakoitzak gerru inkontinentziaren garapenean duten eragina aztertu dutenak (11,23-34).

Txinan aurrera eman zuten ikerketa batean (23), erditze baginal espontaneoak esfortuzko gerru inkontinentziaren garapenean eragina zuela baieztatu zen ( $p=0,000$ ). Erditzea

forzepsekin instrumentatua zenean, berriz, esfortzuzko ( $p=0,000$ ) zein gernu inkontinentzia mixtoarekin ( $p=0,04$ ) erlazionatu zen. Gainera, erditu ostean gernu inkontinentzia zuten 186 emakumeren artean 142k erditze baginala izan zutela ikusi zuten eta 44k zesarea. Alderantziz, erditu ostean gernu inkontinentziarik ez zuten 1703 emakumeetatik 713k erditze baginala izan zuten eta 990ek, zesarea.

Zeharkako ikerketa bat eta kohortezko bik (11,24,25), erditze baginal instrumentatua izatearen eragina aztertu zuten. Erditzetik 6 hilabetera gernu inkontinentziaren iraunkortasuna zenbatetsi eta honekin erlazionaturiko arrisku faktoreak aztertu zituzten ikerketan (11), erditze baginal instrumentatua izan zuten emakumeek erditzetik 2 hilera gernu inkontinentziarekin jarraitzeko arrisku handiagoa zutela baieztatu zen. Lin et al-ek egindakoan ere (24), erditze baginal instrumentatua izatea arrisku faktore estatistikoki esanguratsutzat onartu zen erditzetik 3 hilera gernu inkontinentzia izateko ( $p=0,042$ ). Kanadan buruturiko ikerketari dagokionez (25), aldagai bakarreko analisisian forzeps bidez instrumentaturiko erditzea arrisku faktoretzat onartu zuten urgentziazko zein edozein motatako gernu inkontinentziaren garapenerako,  $p=0,001$  eta  $p=0,01$  izanik, hurrenez hurren. Aldagai anitzeko analisisian, berriz, erditze mota hau edozein motatako gernu inkontinentziaren garapenarekin lotu zen ( $p=0,008$ ).

Ikerketa ugari, erditze baginala edo zesarea bidezko erditzea izan zuten emakumeen artean, gernu inkontinentzia garatzeko zuten arriskua alderatu zuten (26-31). Torrisi et al-ek buruturiko ikerketan (26), aldagai bakarreko analisisian erditze baginala izatea arrisku faktore izan zen gernu inkontinentziaren garapenerako,  $p=<0,001$  balorearekin. Erditze mota ezberdinak aztertzean, gernu galeren prebalentzia erditze baginala izan zutenetan %27koa eta zesarea izan zutenetan %12koa zela ikusi zen. Analisi erregresiboan ere, erditze baginala izatea erditzetik 3 hilera gernu galerak izateko arrisku faktore independentea zela onartu zen ( $p=0,001$ ). Espainian eginiko beste ikerketa batean (27), erditze baginalak erditu ostean esfortzuzko gernu inkontinentzia izatearen arriskua hirukoizten zuela ondorioztatu zen. Iranen buruturiko ikerketaren kasuan (28), erditze baginala izan zuten emakumeetan, esfortzuzko gernu inkontinentziaren maiztasuna handiagoa zen zesarea bidez erditu zutenena baino erditzetik hilabetera (%14,2 vs %7,9), sei hilabetera (%12,2 vs %6,5) zein 12 hilera (%14,2 vs %7,9). Are gehiago, erditze baginala izan zutenen artean, instrumentatuek espontaneoak izan zirenek baino maiztasun handiagoz aurkezten zuten inkontinentzia mota hau (%10,1 vs %4,1). Johannessen et al-ek ere (29), erditze moten arteko ezberdintasunak aurkitu zituzten. Beren ikerketan,

erditzetik urtebetera gernu inkontinentzia zuten 300 emakumeetatik 280k erditze baginala izan zuten (espontaneo zein instrumentatua), zesarea izan zutenak 20 bakarrik zirelarik. Aurreko emaitzak berretsiz, erditze baginala eta zesarearen arteko ezberdintasunak aurkitu zituzten kohortezko beste bi ikerketek ere (30,31). Hauetako batek (30) erditzetik 6 hilabetera, erditze baginala izan zuten emakumeetatik %23ak eta zesarea bidez erditu zutenetatik %8ak gernu inkontinentzia zuela ikusi zuen, azken hauek gernu galerak izateko arrisku txikiagoa zutela ondorioztatuz ( $p < 0,01$ ). Beste ikerketari dagokionez (31), parte hartzaileetatik zesarea bidez erditu zutenen %94,6 kontinenteak ziren erditzetik 3 hilera, erditze mota hau izan zuten emakumeetan gaixotasunaren prebalentzia baxuagoa izanik, ezberdintasun estatistikoarekin ( $p = 0,02$ ).

Beste aldetik, hiru ikerketa dira (32-34) erditze mota eta gernu inkontinentziaren arteko harreman estatistikoki ez esanguratsuak lortu dituztenak. Frantzia buruturikoan (32), erditze baginalarekin alderatzean, zesarea bidezko erditzea gernu inkontinentzia garatzeko arrisku txikiagoa edukitzearekin erlazionatu bazen ere, ez zen estatistikoki esanguratsua izan. Gainera, erditzetik urtebetera erlazio hori desagertu egiten zen. Kohortezko eta kasu-kontrolako beste ikerketen kasuan (33,34), emakumearen erditze mota edozein izanda ere erditze osteko gernu inkontinentzia garatzeko arrisku faktore ez zela ondorioztatu zen.

Kasu honetan, ondorioztatu dezakegu erditze motak eragina duela erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenean, ikerketa gehienek emaitza estatistikoki esanguratsuak lortu baitituzte. Erditze moten artean, erditze baginala izatea arrisku faktore dela baieztatu genezake. Era berean, zesarea bidezko erditzeetan gernu inkontinentzia izateko arriskua txikiagoa izan ahal dela ondorioztatu dezakegu. Gainera, erditzea instrumentatuta izateak arrisku hau handitzen duela ere esan genezake.

## *2. EPISIOTOMIA*

Episiotomia ikerketa ugari aztertu dute erditze osteko gernu inkontinentziarekin harremana izan dezakeen faktoretzat eta hauetan lortutako emaitzak askotarikoak izan dira (11,23,25,27-31,33-35).

Espanian eginiko bi ikerketek (11,35), episiotomiak erditze ostean gernu inkontinentzia garatzeko arrisku handiagoa zekarrela ondorioztatu zuten. España et al-ek buruturikoan (35), erditu ostean gaixotasuna aurkeztzen zuten emakumeen %67,7ak episiotomia zuela

ikusen. Erditu ostean garaturiko gernu inkontinentziaren iraunkortasunarekin erlasionaturiko arrisku faktoreak identifikatzeko eginiko beste ikerketan (11), episiotomia egin zitzaien emakumeek erditzetik 2 hilera gernu inkontinentziarekin jarraitzeko arrisku handiagoa zutela ikusi zen.

Emaitza berdinak lortu ziren kohortezko beste hiru ikerketetan (23,25,28), episiotomiak erditze osteko gernu inkontinentzia mota ezberdinen garapenarekin erlazioa zuela hain zuzen ere. Kanadan eginiko ikerketa batean (25), erditzetik lau hilabetera parte-hartzaileei eginiko galdeketa baten bitartez, episiotomia urgentziazko gernu inkontinentziaren garapenean arrisku faktorea zela ikusi zen  $p < 0,001$  izanik, hau da, estatistikoki esanguratsua. Izan ere, gernu inkontinentzia mota hau garatu ez zuten emakumeen %81,3k ez zeukan episiotomiarik. Txinan buruturiko beste lan batek (23), berriz, episiotomia egin izana esfortzuzko eta gernu inkontinentzia mixtoaren garapenarekin lotu zuen,  $p=0,000$  eta  $p=0,028$  baloreekin, hurrenez hurren. Iranen aurrera eramandako batean (28), episiotomia egin zitzaien emakumeetan (%11,5) erditu osteko esfortzuzko gernu inkontinentziaren prebalentzia handiagoa zela ikusi zen episiotomiarik egin ez zitzaienekin alderatuz (%2,7), ezberdintasun hau estatistikoki esanguratsua izanik.

Badaude, ordea, aurkako emaitzak lortu dituzten ikerketak ere. Espainia eta Norvegiar eginiko kohortezko hiru ikerketek (29,31,33), esate baterako, episiotomia arrisku faktore posibletzat aztertu zuten beren lanetan, eta hirurek emaitza berdina lortu zuten: episiotomia ez zen arrisku faktorea erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenean.

Novo et al (27) eta Leroy et al-en (34) ikerketek ere, bat egin zuten aurrekoen ondorioekin. Hau da, beraien ikerketetan episiotomia arrisku faktore ez esanguratsua zela ikusi zuten erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenerako.

Azkenik, gernu inkontinentziaren intzidentziaren eta arrisku faktore obstetrikoen arteko erlazioa aztertu zen ikerketa batean (30), episiotomia bakarka erditu osteko gernu inkontinentzia garatzeko arrisku faktore ez zela ikusi zen, baina beste faktore batzuekin konbinatzen zenean (haurraren pisua 3540g edo gehiagokoa zen kasuetan, esaterako), gaixotasuna pairatzeko arriskua handitzen zuen.

Episiotomiak erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenean duen eraginari buruz dagoen iritzia heterogeneotasuna ikusiz, zaila litzateke soilik lan hauetatik ondorio garbi bat ateratzea. Beraz, faktore honek erditze osteko gernu inkontinentziaren gain duen eragina zehazki ezagutzeko honen inguruko lan gehiago aztertu beharko lirateke.

### *3. PARITATEA*

Hautatutako artikuluen artean, lau lanek paritateak erditze osteko gernu inkontinentziaren gain duen eragina aztertzen dute (11,24,27,34).

Haurdunaldian zein erditzetik urtebetera esfortzuzko gernu inkontinentzia eta honekin loturiko arrisku faktoreak aztertu zituzten ikerketa batean (24), erditze baginala izan zuten parte-hartzaileetan, honakoa ikusi zen: paritatea erditzetik 3 eta 12 hilabetera gernu inkontinentziarekin jarraitzeko arrisku faktorea zen,  $p=0,025$  eta  $p=0,042$  baloreekin, hurrenez hurren.

Ondorio berdinerara heldu ziren Espainia eta Brasilen burutu ziren beste bi ikerketetan ere (11,34). Paritateak erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenarekin erlazioa zuela ondorioztatu zen bi lan hauetan. Lehenengoan (11), erditze bat baino gehiago izan zuten emakumeek erditzetik bi hilera gernu inkontinentziarekin jarraitzeko arrisku handiagoa zutela baieztatu zen. Bigarren ikerketaren kasuan (34), erditze osteko garaian aurkitzen ziren emakume kontinente ( $n=267$ ) eta inkontinenteen ( $n=77$ ) arteko konparaketa egitean, inkontinenteak ziren emakumeetatik %57,1 multiparak zirela ikusi zen, aldagai hau arrisku faktoretzat onartuz ( $p=0,0291$ ).

Ikerketa hauek esandakoa ez bezala, Novo et al-ek aurrera eramandako ikerketan (27), erditu osteko esfortzuzko gernu inkontinentziarekin harremana zuten faktoreak aztertzean paritateak eragin estatistiko esanguratsurik ez zuela ikusi zuten.

Ikerketek lortutako ondorioak ikusirik, guztien arteko adostasunik ez badago ere, paritatea erditze osteko gernu inkontinentziarekin erlazonatuta egon ahal dela pentsatu dezakegu. Izan ere, ikerketa gehienek arrisku faktoretzat identifikatu dute multiparitatea. Hala eta guztiz ere, faktore hau aztertzen duten ikerketa gehiago beharko lirateke hau horrela dela baieztatu ahal izateko.

## FAKTORE EZ-OBSTETRIKOAK

### *1. FAKTORE SOZIODEMOGRAFIKOAK*

#### *1.1 ADINA*

Aztertutako lan askok ikertu duten faktore bat amaren adina eta honek erditze osteko gernu inkontinentziarengan duen eragina izan da (11,23-30,32-35).

Txina eta Iranen aurrera eman ziren bi ikerketek (23,28), amaren adina eta erditze osteko gernu inkontinentziaren arteko erlazioa estatistikoki esanguratsua zela ondorioztatu zuten, arriskua areagotzen zuen adina espezifikatu ez bazuten ere. Txinan eginikoan (23), amaren adin altua erditze osteko esfortzuzko gernu inkontinentziarekin harremandu zuten ( $p=0,000$ ). Iraneko ikerketaren kasuan (28), non erditze baginala eta zesarea izan zuten emakumeen arteko bereizketa egin zen, bi kasuetan arrisku faktore izan zen amaren adina (erditze baginala  $p=0,021$ ; zesarea  $p=0,043$ ).

Erditze baginal batetik 4 hilabetera gernu inkontinentzia zein inkontinentzia analaren prebalentzia zein hauekin loturiko arrisku faktoreak identifikatzeko buruturiko ikerketa batean (25), aldagai bakarreko analisisian amaren adina 30 urte edo gehiagokoa izatea erditu ostean esfortzuzko ( $p=0,05$ ), urgentziazko ( $p=0,05$ ) zein edozein gernu inkontinentzia mota ( $p=0,003$ ) garatzeko arrisku faktorea zela ikusi zuten. Izan ere, erditu osteko 4. hilabeteetan edozein motatako gernu inkontinentzia zuten 181 emakumeetatik 104k (%57,5) 30 urte edo gehiago zituzten. Aldagai anitzeko analisisian ere, ondorio berdina lortu zuten aurrez aipaturiko gernu inkontinentzia motetan, hau da, emaitza estatistikoki esanguratsuak lortu ziren (esfortzuzkoa  $p=0,02$ ; urgentziazkoa  $p=0,01$ ; edozein motatakoa  $p=0,004$ ).

Aurreko emaitzei jarraiki, Novo et al-ek ere (27), euren ikerketan 30 urtetik aurrera emakumeen adina handiagoa zen heinean erditze osteko gernu inkontinentzia izateko arriskua ere handitu egiten zela ikusi zuten. Emaitza berdina lortu ziren Wesnes et-al-ek egin zuten kohortezko ikerketan (30). Amaren adina handiagoa izan heinean erditu osteko gernu inkontinentzia izateko arriskuaren handitzea ematen zela ondorioztatu zen, kasu honetan, 29 urtetik gorako adinekin.

Era berean, Norvegian eginiko ikerketa batean (29), non parte-hartzaileek haurdunaldiko azken lau asteetan eta erditzetik urtebetera gernu inkontinentzia zein inkontinentzia fekalaren sintomen inguruko galderak erantzun zituzten, ondorio berdinerara heldu ziren. Kasu honetan, erditzean  $>34$  urte zituzten emakumeek urtebetera gernu inkontinentzia edukitzeko arrisku handiagoa zuten,  $p<0,05$  balorearekin, estatistikoki esanguratsua izanik.

Europar buruturiko kohortezko beste bi ikerketek ere (26,35), bat egin zuten aurreko ikerketek lortutako ondorioekin. Batean (26), aldagai bakarreko analisisian amaren adina  $>35$  izatea estatistikoki esanguratsua zela ikusi zen ( $p=0,03$ ), eta bestean (35), amak 35 urte baino gehiago izateak erditu ostean gernu inkontinentzia izateko probabilitatea handitzen zuela ikusi zen.

Aurreko lanetako emaitzak kontraesan zituzten azterturiko bost ikerketek (11,24,32-34). Lan hauetan aldagai honen eta erditze osteko gernu inkontinentziaren arteko erlazioa aztertu ostean, amaren adinak gernu galerak edukitzearekin harreman ez esanguratsua zuela ondorioztatu zuten, hau da, aldagai hau ez zuten erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktoretzat hartu.

Informazio guzti honekin eta artikuluen artean aurkako ondorioak ikusi baitaitezke ere, esan genezake amaren adinak eragina izan ahal duela erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenean, lan gehienek hau ondorioztatu baitute. Hala ere, amaren adina esanguratsua dela dioten artikuluen artean ez dago adostasunik arrisku adina zehazterakoan, beraz, hau ezingo genuke finkatu lortutako datuekin.

### *1.2 DIRU-SARRERAK*

Zenbait lanek, diru-sarrerek erditze osteko gernu inkontinentziaren agerpenean duten eragina aztertu dute (11,28).

Espanian aurrera eman zen ikerketa batean (11), diru-sarrerek erditu osteko gernu inkontinentzian eragina zutela ikusi zuten. Izan ere, 2000€ edo baxuagoa zen hileroko familia errenta zuten emakumeek, erditzetik bi hilabetera gernu inkontinentziaren sintomekin jarraitzeko arrisku handiagoa zuten.

Iranen buruturiko beste ikerketa batean (28) aurrez erditzerik izan ez zuten 286 parte-hartzaileen aurrekari soziodemografikoak aztertzean, erditu osteko esfortzuzko gernu inkontinentzia diru-sarrera baxuagoak izatearekin erlazonaturik zegoela ikusi zen,  $p=0,028$  balorearekin, hau da, datu hauek estatistikoki esanguratsuak izanik. Izan ere, hilabeteko diru sarrerak handiagoak izan heinean gernu inkontinentziarik ez zuten emakume gehiago zegoela ikusi zen. Gernu galerarik ez zuten emakumeen taldearen barnean, %14,9ak 400 dolar baino gutxiagoko sarrerak zituen, %40,3ak 400-1000 dolar artekoak eta %44,8ak hilabetero 1000 dolar edo gehiagoko diru sarrerak zituen.

Soilik bi lanetan aztertu da diru sarrerek erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenean izan ahal duten eragina eta horregatik zaila da bi lan horietan lortutako emaitzekin ondorio zehatz batera heltzea. Faktore hau aztertzen duten ikerketa gehiago beharko genituzke horretarako. Hala ere, bi lan horietako emaitzak ikusita, badirudi diru



sarrera baxuak izatea erditze ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktorea izan daitekeela.

## *2. OSASUN EGOERA*

### *2.1 EZTULA*

Hainbat ikerlarik ohiko eztula edota eztul kronikoa izatea gernu inkontinentziaren garapenarekin erlazionatzen dute (26,35).

Lehenengo erditzetik hiru hilabetera gernu inkontinentzia edukitzeko arrisku faktoreak aztertu ziren kohortezko ikerketa batean (26), eztul kronikoak eragina zuela ikusi zen aldagai bakarreko analisian, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuekin ( $p=0,002$ ). Hau da, eztul kronikoa aurkezten zuten emakumeek arrisku gehiago zuten gaixotasuna garatzeko.

Espanian eginiko beste ikerketa batean (35), erdigabeak ziren 1128 emakumek galdetegi bat bete zuten haurdunaldiaren hiruhileko bakoitzean eta erditu osteko bisitan (lehen 7 asteen inguruan). Erditu osteko bisitan galdetegia bete zuten emakumeen artean ( $n=928$ ), 155 emakumek gernu inkontinentzia aurkeztu zuten eta horien %18,7-ak ohiko eztula zuela adierazi zuen. Horrela, aldagai hau erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenerako arrisku faktore zela baieztatu zen.

Ohiko eztula edo eztul kronikoa edukitzea erditze ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktorea dela ematen du. Hala ere, faktore honen eragina aztertzen duten lanak soilik bi izanda, zaila da ondorio hau guztiz baieztatzea. Eztulak erditze osteko gernu inkontinentziaren gain duen eragina aztertzen duten lan gehiago beharko lirarteke.

### *2.2 IDORRERIA*

Idorreria pelbiseko presio eta tentsio errepikatuekin erlazionatuta dagoenez, zenbait lanek faktore honek erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenean izan dezakeen eragina aztertu zuten (26,34).

Torrisi et al-en ikerketan (26), idorreria izatea erditu ostean gernu inkontinentzia garatzeko arrisku faktore estatistikoki esanguratsua zela ikusi zuten aldagai bakarreko analisian ( $p=0,047$ ).

Da Silva et al-ek eginiko kasu-kontrolako ikerketan (34), erditu osteko lehen 90 egunetan aurkitzen ziren 344 emakumeren ezaugarriak aztertu zituzten. Hauek, erditu osteko garaian gernu inkontinentzia aurkezten zutenen (kasu taldea) eta kontinenteak zirenen (kontrol taldea) artean banatu zituzten, talde bakoitzean 77 eta 267 emakume izanik, hurrenez hurren. Bertan, erditze ostean gernu inkontinentzia zuten emakumeen %58,4ak idorreria zeukala ikusi zuten. Bi aldagaietako analisisia egiterakoan, idorreria izatea erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktorea zela ikusi zuten,  $p=0,0345$  balorearekin, hau da, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuekin.

Soilik bi lanek aztertu zuten idorreria erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktore posibletzat. Lan horien emaitzei erreparatuz, idorreria edukitzea gernu inkontinentzia garatzeko arrisku faktorea dela ematen du. Hala ere, ondorio hori guztiz baieztatu ahal izateko faktore hau aztertzen duten lan gehiagoren beharra dago, izan ere, ezin dugu baieztapen zehatzik egin soilik bi lanetako emaitzetan oinarrituta.

### *2.3 GMI/PISUA*

Emakumearen pisua zein Gorputz Masa Indizea (GMI) aztertu dituzten ikerketak ondorio ezberdinetara iritsi dira (11,23,24,26-30,32-35).

Bi ikerketa ezberdinek faktore hauek erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenean eragina zutela ondorioztatu zuten (23,32). Yang et al-ek eginiko kohortezko ikerketan (23), erditze aurreko garaian pisu altua izatea erditze ostean esfortzuzko gernu inkontinentzia izatearekin erlazionatu zen ( $p=0,001$ ). Frantzia eginiko zeharkako ikerketari dagokionez (32), erditzetik urtebetera gernu inkontinentzia zuten emakumeen %20,9ak haurdunaldian zehar  $\geq 25\text{kg/m}^2$ -ko GMI zuela ikusi zen, bien arteko harremana ondorioztatuz.

Kokabi et al-ek ere (28), beren ikerketan esfortzuzko gernu inkontinentziaren eta faktore honen arteko harremana aztertzean, gernu galerak zituzten emakumeek GMI handiagoa zutela ikusi zuten galerarik ez zutenekin alderatuz, arrisku faktore estatistikoki esanguratsutzat onartuz ( $p=0,038$ ).

Emaitza hauek berretsiz, Espainian aurrera eramandako zeharkako ikerketa batean (11), erditu ostean  $\text{GMI} \geq 25\text{kg/m}^2$  zuten emakumeek erditzetik 2 hilerako gernu inkontinentziarekin jarraitzeko arrisku handiagoa zutela baieztatu zen. Halaber, erditzetik 6 hilerako gernu galerekin jarraitzeko probabilitatea 1,10 aldiz handiagoa zela ikusi zuten

haurdunaldi aurreko pisua berreskuratu ez zuten emakumeetan. Wesnes et al-ek ere (30), emakumeek erditzetik 6 hilabetera  $GMI \geq 25\text{kg/m}^2$  izateak gernu inkontinentzia izatearekin harremana zuela ikusi zuten.

Beste alde batetik, badira zenbait ikerketa faktore honen inguruko datu kontrajarriak aurkitu dituztenak (26,33). Espainian burutu zen kohortezko ikerketan (33), emakumeei erditze baginala izan zutenetik sei hilabetera elkarrizketa bat egin zitzairen. Bertan, erditze osteko garaian gaixotasuna garatu zuten emakumeek haurdunaldian zehar  $14,4 \pm 4,0$  kg irabazi izana arrisku faktore zela ( $p=0,02$ ) ikusi zen. GMI aztertzean, ordea, erditze osteko gernu inkontinentziarekin harreman esanguratsurik ez zuela ondorioztatu zen lan horretan. Torrasi et al-en ikerketan (26), analisi erregresiboan haurdunaldi aurretik obesitatea izatea ( $GMI > 30\text{kg/m}^2$ ) erditzetik 3 hilabetera gernu inkontinentzia edukitzeko arrisku faktore independentea zela baieztatu zen,  $p=0,025$  balorearekin. Ikerketa berean haurdunaldian zehar irabazitako pisua behatzean, ordea, erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenarekin erlaziorik ez zuela ondorioztatu zen.

Azkenik, aldagai hauek erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenean arrisku faktore ez direla ondorioztatu duten ikerketak daude (24,27,29,34,35). Espuña et al-ek eginiko lanean (35), ikerketaren hasiera momentuko emakumeen GMI zein haurdunaldian zehar irabazitako pisua aztertu zituzten eta hauek erditze osteko gernu inkontinentziarekin harreman estatistikoki esanguratsurik ez zutela ikusi zuten. Espainian (27) eginiko beste ikerketa batek ere, bat egin zuen aurrekoaren emaitzekin. Izan ere, haurdunaldian zehar emakumeek irabazitako pisua aztertzean, aldagai hau erditu ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktore ez zela baieztatu zuen.

Taiwanen buruturiko ikerketa batean (24), emakumeen haurdunaldi aurreko zein erditze momentuko pisua zein GMI aztertu ziren eta hauek erditze ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktore ez zirela ikusi zuten. Beste kohortezko eta kasu-kontrolako ikerketek ere (29,34), GMI eta gernu galeren arteko harreman eza ondorioztatu zuten beren emaitzetan.

GMI eta pisuak erditze osteko gernu inkontinentziarekin duten harremana lan ugari ikertu dutela ikusi ahal da. Hauek aztertuz, ezin genezake baieztatu arrisku faktore esanguratsuak direnik, izan ere, aldagai esanguratsuak direla zein ez direla ondorioztatu duten artikuluen artean banaketa dagoela ikusi daiteke. Gainera, arrisku faktore estatistikoki esanguratsuak direla dioten artikuluen artean ez dago adostasunik zein momentutako pisua/GMI den faktore esanguratsutzat onartzean.

## *2.4 HAURDUNALDIAN GERNU INKONTINENTZIA*

Haurdunaldian gernu inkontinentzia izatea, erditu osteko garaian ere gernu inkontinentzia izatearekin erlazionatuta dagoen edo ez ikerketa ugari aztertu duten aspektuetako bat da (26,27,31-34,36).

Europako lurralde ezberdinetan egindako hiru kohortezko ikerketek (26,31,33), haurdunaldian zehar gernu inkontinentzia izateak erditze ostean ere gaixotasuna izatearekin harremana zuela adierazi zuten.

Espanian burutu zirenei dagokionez, hauetako batean (33), erditze baginala izan zuten emakumeek erditzetik 6 hilabetera gernu inkontinentzia pairatzeko arrisku handiagoa zutela ikusi zen haurdunaldiaren amaieran ere gernu inkontinentzia pairatu bazuten, esfortzuzkoa zehazki. Bigarren ikerketari dagokionez (31), erditzetik 3 hilabetera gernu inkontinentzia zuten emakumeen %70ak haurdunaldian dagoeneko gernu inkontinentzia pairatzen zuela ikusi zen.

Ildo honi jarraituz, Torrisi et al-ek (26), aldagai hau erditu ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktore independentetzat hartu zuten, izan ere, erditzetik 3 hilabetera gaixotasuna adierazi zuten 161 emakumeetatik 85ek (%53), haurdunaldian zehar garatu zuten.

Antzeko emaitzak lortu ziren Alemanian aurrera eramandako zeharkako ikerketa batean (36). Lan honetan haurdunaldiaren bigarren erdian eta erditu osteko lehen 6 asteetan gernu inkontinentzia zuten emakumeen kopurua ia berdina zela ikusi zen, 108 eta 117 hurrenez hurren. Gainera, haurdunaldian zehar gaixotasuna adierazi zuten emakumeen %44ak erditu ostean sintoma berdinak zituen. Zeharkako beste ikerketa batek (27), haurdunaldian gernu inkontinentzia izateak erditze ostean hau pairatzeko arriskua hirukoizten zuela ondorioztatu zuen.

Frantzian eginiko ikerketa batean (32), haurdunaldiaren 5. hilabeteetan gernu inkontinentzia izatea erditu osteko 2. hilabeteetan eta 1. urtean gaixotasuna edukitzearekin erlazionatu zuten,  $p < 0,01$  baloreekin bi kasuetan, hau da, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuekin. Gainera, erditzetik urtebetera gernu inkontinentzia zuten 43 emakumeen %30,2ak haurdunaldiko 5. hilabeteetan gernu galerak zituela ikusi zen.

Azkenik, Brasilen aurrera emandako kasu-kontrolleko ikerketa batean (34), erditze ostean kontinenteak (kontrol taldea) eta inkontinenteak (kasu taldea) ziren emakumeak

alderatzerakoan, haurdunaldian gernu inkontinentzia izatea faktore estatistikoki esanguratsua zela ondorioztatu zen ( $p < 0,0001$ ). Bi aldagaietako analisisa egitean, ondorio berdinerira iritsi ziren ( $p < 0,0001$ ). Erditze ostean inkontinenteak ziren emakumeei erreparatur, %70,1ak haurdunaldian ere gernu galerak zituela ikusi zen. Era berean, erditu ostean gernu inkontinentziarik ez zutenen %83,9a haurdunaldian ere kontinenteak ziren.

Ikerketa guztiek lorturiko emaitzak bat datozela ikusirik, ondoriozta dezakegu emakumeei haurdunaldian zehar gernu inkontinentzia izatea arrisku faktorea dela erditu ostean ere gernu galerak izateko.

### *3. FAMILIA AURREKARIAK*

Zenbait ikerlarik, familian gernu inkontinentziaren aurrekariak izateak erditu osteko gernu inkontinentziaren garapenarekin zerikusia duen aztertu zuten (26,35).

Espanian eginiko ikerketa batean (35), erditu ostean gernu inkontinentzia aurkeztu zuten 928 emakumeetatik %24,5-ak, familian gernu inkontinentzia aurrekariak zituela ikusi zen. Ikerketan, faktore honek erditze ostean gernu inkontinentzia izateko arriskua handitzen zuela onartu zen.

Torrisi et al-ek buruturiko beste ikerketa batean ere (26) faktore honen gaineko emaitza berdinak lortu zituzten. Lan honetako analisi erregresiboan familian gernu inkontinentzia aurrekariak izatea erditu ostean gaixotasun hau garatzeko arrisku faktorea zela baieztatu zen,  $p = 0,008$  izanda, hau da, estatistikoki esanguratsua.

Aztertutako lan guztien artean soilik bik ikertu zuten faktore honen eragina erditze osteko gernu inkontinentziaren gain. Bi lanetan ondorio berdinerira heldu ziren arren, hots, gernu inkontinentzia familia aurrekariak edukitzea erditze ostean gernu inkontinentzia izateko arrisku faktorea dela, beharrezkoa da faktore honen inguruko ikerketa gehiago ondorio zehatz batera heldu ahal izateko.

## ONDORIOAK

Literaturaren berrikusketa kritiko honetan, ikusi daiteke erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenean eragina izan dezaketen arrisku faktoreak anitzak direla.

Faktore obstetrikoei dagokionez, erditze motak gernu inkontinentziarekin harreman zuzena duela ikusi ahal izan da. Alde batetik, erditze baginala izatea arrisku faktoretzat identifikatu da lan honetan eta era berean, zesarea bidez erditzen duten emakumeek arrisku gutxiago aurkezten dutela ikusi ahal izan da. Paritateari dagokionez, lan guztien arteko adostasunik ez badago ere, gehiengoaren hitzetan faktore honek ere erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenarekin erlazioa duela esan dezakegu. Paritatea handiagoa den heinean erditze ostean gernu inkontinentzia aurkezteko aukera gehiago dago. Episiotomiari dagokionez, aldiz, ikerturiko lanak kontuan izanda ezin liteke ondorio garbi batetara iritsi. Izan ere, ikerlari ezberdinek lortutako emaitzen artean ondorio kontrajarriak daudela ikusi da.

Faktore ez-obstetrikoen kasuan, faktore soziodemografikoen artean, amaren adina arrisku faktore estatistikoki esanguratsua dela ikusi da ikerketa gehienetan. Hala ere, ezin izan da adin zehatz bat finkatu, lanek ezarririko adinak ezberdinak baitira. Orokorrean, lan gehienek 29-35 urtetik gorako adina ezarri zuten eta beraz, inguru horretan finkatu genezake arriskuko adina. Diru-sarrerei, zein osasun egoeraren barnean aztertu diren eztula eta idorreriaren kasuan, bina ikerketek soilik aztertu zituzten faktore hauetako bakoitza. Hiru faktore hauen kasuan, emaitza estatistikoki esanguratsuak lortu ziren, beraz interesgarria litzateke arrisku faktore posible hauen inguruko ikerketa gehiago burutzea, bi lanetan lorturiko datuekin soilik ezin baita ondorio zehatzik lortu.

Osasun egoeraren barnean aztertutako amaren GMI/pisua, lan honetan ezin izan da zehaztu arrisku faktore den edo ez erditze osteko gernu inkontinentziaren garapenerako. Izan ere, iritzi kontrajarriak ikusi dira, eta gainera, arrisku faktore estatistikoki esanguratsua dela dioten ikerketen artean adostasun falta dago zein momentutako pisua/GMI den esanguratsua onartzean. Beste alde batetik, haurdunaldian zehar gernu inkontinentzia izatea erditze ostean ere gernu galerak izateko arrisku faktore dela baieztatu daiteke. Azken azpitaldea familia aurrekariena da. Faktore hau, beste batzuekin gertatu den moduan, bi ikerketek soilik landu dute. Honen kasuan, bi ikerketek bat egiten

dute arrisku faktore estatistikoki esanguratsua dela diotenean, baina ezin dugu konklusiorik baieztatu, datu gehiago behar baigenituzke.

Jakinik zein faktore diren gernu inkontinentziaren garapenean eragina izan dezaketenak, erizainok arlo ugariaren gain esku hartu dezakegu. Izan ere, faktore hauetako zenbait emagin zein obstetra bezalako espezialistek soilik landu ahalko dituzten arren (erditze mota eta episiotomia esaterako), arrisku faktoretzat identifikatu diren aldagaietako ugari erizainok lehen mailako arretatik landu genituzake (eztula, idorreria, GMI/pisua).

## MUGAK ETA ZAILTASUNAK

Hasiera batean, lan honen helburua finkatzeko zailtasunak izan nituen, eta hau izan da, beharbada, errebisio bibliografiko honen burutzean aurkitutako oztopo handienetako bat. Lehen momentuan hautatu nuen helburua birritan aldatzea erabaki nuen lana aurrera eramanez ahal izateko zailtasunekin aurkitu nintzelako. Hori dela eta, azkenik erditze osteko gernu inkontinentziaren arrisku faktoreak aztertzea hautatu nuen. Behin helburua finkaturik, ez dut muga handirik izan errebisio hau burutzeko. Datu-baseetan eginiko bilaketek emaitza nahiko zehatzak eman dituzte, artikulu baliagarriak eskuratuz.

Emaitzen atalera iristean, aztertuko nituen faktoreen hautaketan zalantzak izan nituen, errebisio bibliografiko honetan erabilitako lanetan beste hainbat aldagai ikertu baitira: epiduralaren erabilera, haurraren buru zirkunferentzia, adin gestazionala... Faktore hauek, azkenean lan honen emaitzak idazterako orduan baztertzea erabaki nuen arrisku faktore estatistikoki ez esanguratsuak zirela esaten zutelako ikerlan denek, ikerketa bakar batek aztertu zuelako faktorea...

Aurretik aipatu dudana bezala, errebisio honetan aztertu diren faktore ez-obstetrikoko ugari (eztula, idorreria, diru-sarrerak eta familia aurrekariak) ikerketa pare batean baino ez dira aztertu. Lan hauek, ordea, bat egiten dute faktore hauek esanguratsuak direla ondorioztatzean. Hau kontutan izanik, aldagai hauek lantzen dituen ikerketa gehiagoren beharra legoke.

Askotan, erditze osteko gernu inkontinentzia faktore obstetrikoekin lotzen da, arlo honen gain lan egitea emagin edota obstetren gain utziz. Lan honetan, aldiz, ikusi ahal izan da

faktore ez-obstetrikoez ere eragina dutela gaixotasun honen garapenean, faktore hauek aztertzen dituzten ikerketen falta dagoen arren. Hau horrela izanik beraz, erizainok emakumearen bizi zikloan zehar faktore hauen gain lan egiteko aukera izango dugu.



## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 1) Bezares B, Sanz O, Jiménez I. Patología puerperal. *An Sist Sanit Navar.* 2009;32(1):169-175.
- 2) Berens P. *Overview of Postpartum Care.* Wolters Kluwer. 2017.
- 3) Carrillo K, Sanguineti A. Anatomía del piso pélvico. *Rev Med Clin Condes.* 2013;24(2):185-189.
- 4) Fonti Y, Giordano R, Cacciatore A, Romano M, La Rosa B. Post partum pelvic floor changes. *J Prenat Med.* 2009;3(4):57-59.
- 5) Castro-Pardiñas MA, Torres-Lacomba M, Navarro-Brazález B. Función muscular del suelo pélvico en mujeres sanas, puérperas y con disfunciones del suelo pélvico. *Actas Urol Esp.* 2016.
- 6) Aliaga-Martínez F, Prats-Ribera E, Alsina-Hipólito M, Allepuz-Palau A. Impacto en la función de los músculos del suelo pélvico de un programa de entrenamiento específico incluido en el control habitual del embarazo y el posparto: ensayo clínico controlado no aleatorizado. *Matronas Prof.* 2013;14(2):36-44.
- 7) Williams Jimenez RA. Manejo de la incontinencia urinaria en la mujer. *Rev Médica Costa Rica y Centroamérica.* 2015;72(614):205-209.
